

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

4.SAIOA

DATA: 2022-11-16
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 15 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia) eta Iraitz Lazkano (alkatea)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Ihabar Arriaran.

AURKEZPENA – KOOPERATIBA ETA ELKARTEA

Goienerreko Oier Etxebarriak kooperatibaren ezaugarriak azaldu ditu, elkarte eta kooperatibaren ezberdintasunekin batera.

Ondoren galderak egiteko tartea zabaldu da zalantzak zituzten horientzat.

**Dokumentu honekin batera erabilitako aurkezpena.*

LANTALDEETAKO ARIKETA

Komunitatea eta komunikazioa lantaldea	Energia-proiektuen lantaldea	Lantalde juridiko-administratiboa
Komunitatearen zaintzaz eta harreman-sareak zabaltzeaz arduratuko den lantaldea izango da. Bertan zehaztuko dira komunitatearen funtzionamendua , harreman-sareak etengabe zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia .	Proiektu desberdinak proposatu eta horien bideragarritasuna aztertzea izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua , zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktumota guztiak neurtzen dituen, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea.	Lantalde hau kooperatibaren eraketan landu beharreko alderdiez arduratuko da. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa ere landu beharko du, denboran zehar iraun dezan.

Lantaldeetan banatu gara ondoren. Bi ariketa ezberdin egitea izan da helburua:

1. Lantaldearen helburua zehaztea
2. Lehenengo ekintza plana egitea

Energia lantaldea:

Helburua:

- Lantalde honen helburua energia eredu aldaztea da. Elgetan dagoen energia kontsumoa murriztu eta energia garbia sortzeko helburua izango du.

Ekintzak:

- Goienerrek lehenengo instalazioaren proiektua egingo du
 - o Bideragarritasun azterketa egingo du.

Komunikazio-komunitate lantaldea:

Helburua:

- Taldea zaintzea, barne komunikazioa zehaztea
- Kooperatibaren komunikazio-estrategia zehaztea

Ekintzak:

- Saiotara datozen pertsonen errotazioaren kontrola/kudeaketa egitea.
- Barne komunikaziorako
 - o Talde bakoitzeko whatsapp taldeak sortu
 - o Albiste orokorretarako whatsapp talde orokor bat
 - o Telegramarekin jarraitu
- 3 azpi fase aurreikusten dira
 - o Hasierako fasea: Kooperatiba aurkeztu bitartekoa
 - o Kooperatiba aurkezten deneko fasea
 - o Kooperatiba martxan dagoeneko prozesua
- Barne kohesioa zaindu behar da, komunikazioa bermatuz
 - o Hartzen diren erabaki garrantzitsuetan whatsapp taldean komunikatu zergatiarekin batera
- Kanpora begira
 - o Udalarekin, herritarrekin eta enprekin komunikazio ekintzak egin
- Izena, logoa, mezuak, propaganda sortzen hasi.
 - o Zuzenak eta zehatzak
 - o Izen proposamen batzuk badaude, zerrenda luzeagoa egingo da eta ondoren bozketa orokor batekin erabakiko da izena

Lantalde juridiko administratiboa:

Helburua:

- Estatutuak egin eta kooperatiba martxan jartzea
- Arlo ekonomikoa zehaztea
- Funtzionamendua edo organigrama zehaztea

Ekintzak:

- Kooperatiba izango dela proposatu da.

- Arautuago dagoelako, konpromiso soziala errotan duelako eta irabazi asmorik gabekoa izango delako.
- Bazkide inbertitzaile motarekin zalantzak izan dituzte, azkenean aukera bezala jasotzea erabaki da. Ateak zabalik uzteko helburuarekin.
- Botere banaketaren proposamena honakoa:
 - %60 bazkide parte hartzaileen esku
 - %10 bazkide langile
 - %10 zerbitzu emaile
 - %10 inbertitzaile
- Kontseilu errektorera proposamena honakoa
 - Bazkide laguntzaile finko batzuk zehaztea
 - Fagor
 - Udala
 - Elgetako enpresa bat
- Estatuetan ondo jaso beharko lirateke EBK.ren helburuak zeintzuk diren
- Diru sarrera gutxi dutenei proiektuan sartzeko estrategiak pentsatu
- Frontoiko plaken hitzarmena zehaztu behar da
 - Kontratazioak gainbegiratu

ITXIERA

Hurrengo bileretako planifikazioa:

Faseak	Eginbeharrekoak	Iraila	2022/10/5	2022/10/19	2022/11/2	2022/11/16	2022/11/30	2022/12/14
Hasiera ematea	Prozesua abiatu							
Prestatzea	Formazioak ahalduentzeko							
	EBK eta prozesua + espektatibak							
	Energia faktura - merkatu elektrikoa - pobrezia energ + xedea - helburua							
	Kooperatiba edo elkarte + talde lanketak abiatzea							
	Energia berriztagarriak - autokontsumoa ind. edo kolektiboa + estatutuak							
Eratze prozesua abiatu	EH.ko beste esperientzia batzuk + talde lanketak							
Elkarrekin sortzea	Lantaldeetako lanketak + etxeko lanak							
	...							

Hurrengo saioa azaroaren 30ean, 18:30etan izango da. EH.ko beste esperientzia batzuk kontatzen saiatuko gara.